

ZINEMATEKA

# RICHARD FLEISCHER

2018 17 URRIA OCTUBRE > 13 ABENDUA DICIEMBRE

Bilbao

ARTEA ETA KULTURA
ARTE Y CULTURA

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao
www.azkunazentroa.eus

| | | |
|---|---|---|
| **URRIAK 17** DE OCTUBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30** | **SO THIS IS NEW YORK, 1947** (**HONELAKOA DA NEW YORK** ASÍ ES NUEVA YORK)<br>79' DCP |
| | **19:30** | **VIOLENT SATURDAY, 1955** (**LARUNBAT BORTITZA** SÁBADO TRÁGICO)<br>90' 35mm |
| **URRIAK 18** DE OCTUBRE<br>**Osteguna** Jueves | **17:30** | **VIOLENT SATURDAY, 1955** (**LARUNBAT BORTITZA** SÁBADO TRÁGICO)<br>90' 35mm |
| | **19:30** | **SO THIS IS NEW YORK, 1947** (**ASÍ ES NUEVA YORK** ASÍ ES NUEVA YORK)<br>79' DCP |
| **URRIAK 24** DE OCTUBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30** | **SOYLENT GREEN, 1973** (**SOYLENT GREEN** CUANDO EL DESTINO NOS ALCANCE)<br>97' 35mm |
| | **19:30** | **THE VIKINGS, 1958** (**BIKINGOAK** LOS VIKINGOS)<br>114' 35mm |
| **URRIAK 25** DE OCTUBRE<br>**Osteguna** Jueves | **17:30** | **THE VIKINGS, 1958** (**BIKINGOAK** LOS VIKINGOS)<br>114' 35mm |
| | **20:00** | **SOYLENT GREEN, 1973** (**SOYLENT GREEN** CUANDO EL DESTINO NOS ALCANCE)<br>97' 35mm |
| **AZAROAK 7** DE NOVIEMBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30** | **THESE THOUSAND HILLS, 1959** (**MILA MUINO HAUEK** DUELO EN EL BARRO)<br>96' 35mm |
| | **19:30** | **COMPULSION, 1959** (**KONPULTSIOA** IMPULSO CRIMINAL)<br>103' 35mm |
| **AZAROAK 8** DE NOVIEMBRE<br>**Osteguna** Jueves | **17:30** | **COMPULSION, 1959** (**KONPULTSIOA** IMPULSO CRIMINAL)<br>103' 35mm |
| | **19:30** | **THESE THOUSAND HILLS, 1959** (**MILA MUINO HAUEK** DUELO EN EL BARRO)<br>96' 35mm |

| | | |
|---|---|---|
| **AZAROAK 21** DE NOVIEMBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30** | **FANTASTIC VOYAGE, 1966** (**BIDAIA FANTASTIKOA** VIAJE ALUCINANTE)<br>100' 35mm |
| | **19:30** | **THE BOSTON STRANGLER, 1968** (**BOSTONGO ESTRANGULATZAILEA** EL ESTRANGULADOR DE BOSTON)<br>116' 35mm |
| **AZAROAK 22** DE NOVIEMBRE<br>**Osteguna** Jueves | **17:30** | **THE BOSTON STRANGLER, 1968** (**BOSTONGO ESTRANGULATZAI-LEA** EL ESTRANGULADOR DE BOSTON)<br>116' 35mm |
| | **20:00** | **FANTASTIC VOYAGE, 1966** (**BIDAIA FANTASTIKOA** VIAJE ALUCINANTE)<br>100' 35mm |
| **AZAROAK 28** DE NOVIEMBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30** | **10 RILLINGTON PLACE, 1970** (**RILLINGTON PLACE-KO ESTRAN-GULATZAILEA** EL ESTRANGULADOR DE RILLINGTON PLACE)<br>111' 35mm |
| | **19:45** | **THE LAST RUN, 1971** (**AZKEN IBILALDIA** FUGA SIN FIN)<br>95' 35mm |
| **AZAROAK 29** DE NOVIEMBRE<br>**Osteguna** Jueves | **17:30** | **THE LAST RUN, 1971** (**AZKEN IBILALDIA** FUGA SIN FIN)<br>95' 35mm |
| | **19:30** | **10 RILLINGTON PLACE, 1970** (**RILLINGTON PLACE-KO ESTRAN-GULATZAILEA** EL ESTRANGULADOR DE RILLINGTON PLACE)<br>111' 35mm |
| **ABENDUAK 12** DE DICIEMBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30** | **MANDINGO, 1975**<br>127' 35mm |
| **ABENDUAK 13** DE DICIEMBRE<br>**Osteguna** Jueves | **17:30** | **MANDINGO, 1975**<br>127' 35mm |

**Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA)**
**Sarrerak: Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean**
Todas las proyecciones son en Versión Original, con subtítulos en castellano (VOSE)
Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en www.golem.es

**4,5€ / 3,5€ + info: www.azkunazentroa.eus**

# RICHARD FLEISCHER

(Brooklyn, New York 1916 – Los Angeles 2006)

Richard Fleischer fue un director norteamericano versátil y comercial que realizó cuarenta películas de todos los géneros: cine negro, melodrama, aventuras, bíblico, ciencia-ficción, bélico, épico, histórico, etc.

Hijo del cineasta de animación Max Fleischer, creador de 'Betty Boop' y animador de Popeye, estudió interpretación en la Universidad de Yale después de abandonar la carrera de psicólogo. En 1942 llegó su oportunidad al escogerle la RKO para dirigir una serie de documentales y filmes mudos animados titulados Flicker Flashbacks. A partir de ahí permaneció en la RKO y debutó como director de cine con Hija del divorcio. Ahí comienza su extensa carrera hasta que Walt Disney le contrata para realizar una de sus obras maestras 20.000 leguas de viaje submarino. A partir de entonces desarrollará casi toda su larga trayectoria dentro de la Fox.

En 1993 publicó su autobiografía 'Just Tell Me When to Cry', describiendo los problemas que tuvo en sus relaciones con diferentes actores, productores y guionistas. De estilo humorístico y anecdótico, muchos profesionales como por ejemplo Charlton Heston lo tuvieron como libro de cabecera para conocer los entresijos de la industria del cine norteamericano.

El cineasta heredó de su padre los Fleischer Studios, que poseen los derechos mundiales de 'Betty Boop' y 'Koko the Clown'. En su honor, en 2005 realizó el documental 'Out of the Inkwell: Max Fleischer and The Animation Revolution'.

La crítica siempre le consideró un cineasta ecléctico y artesanal, pero fue ante todo el paradigma del cineasta físico, lo que hizo que el grupo 'marciano' de la revista Film Ideal, a principios de los 60 lo reivindicasen como autor. En sus películas el fin del director era insertar la realidad dentro de una historia coherente y a través de una puesta en escena personal y concreta, que le permitiese dar su visión del mundo: Fleischer es un autor.

Richard Fleischer, ipar Amerikako zuzendari moldakor eta komertzialak berrogei film egin zituen, genero guztiak ukituta: zinema beltza, melodrama, abenturak, biblikoa, zientzia-fikzioa, belikoa, epikoa, historikoa, etab.

'Betty Boop' sortu eta Popeyeren animatzailea izandako Max Fleischer zinemagilearen semeak, psikologoa izateko ikasketak utzi ondoren, interpretazioa ikasi zuen Yaleko Unibertsitatean. 1942an, RKOk aukeratu zuen, Flicker Flashbacks izeneko hainbat dokumental eta film mutu animatu zuzentzeko. Hortik aurrera, RKOn jarraitu zuen, eta Child of Divorce filmarekin hasi zen zinema-zuzendari gisa. Horrela, ibilbide luzeari ekin zion, Walt Disneyk kontratatu zuen arte: bere maisu-lanetako bat egin zuen, 20,000 Leagues Under the Sea. Harrezkero, Fox-en barruan egin zuen bere ibilbide luze ia osoa.

1993an, bere autobiografia argitaratu zuen, 'Just Tell Me When to Cry', eta hainbat aktore, ekoizle eta gidoilarirekin izan zituen arazoak deskribatu zituen. Estilo umoristiko eta anekdotikoko liburua izan zen, eta profesional askok -hala nola Charlton Hestonek- orotariko liburutzat hartu zuten, Ipar Amerikako zinemaren industriako zirrikituen berri jakiteko.

Zinemagileak Fleischer Studioak jaso zituen aitarengandik, 'Betty Boop' eta 'Koko the Clown'-en mundu mailako eskubideak barne. 2005ean, aitaren homenez, berari buruzko dokumentala egin zuen: 'Out of the Inkwell: Max Fleischer and The Animation Revolution'.

Kritikarien ustez, zinemagile eklektikoa, artisanala eta, batez ere, zinemagile fisikoaren paradigma izan da beti. Hala, Film Ideal aldizkariko talde "martetarrak" egile gisa aldarrikatu zuen 60ko hamarkadaren hasieran. Haren filmetan, zuzendariaren xedea da errealitatea istorio koherente baten barruan txertatzea, eta eszenaratze pertsonal eta zehatz baten bidez munduari buruz duen ikuspegia ematea: Fleischer egile bat da.

– José Julián Bakedano –



## SO THIS IS NEW YORK (1947)
## HONELAKOA DA NEW YORK
## ASÍ ES NUEVA YORK

**79'**

**Z/D: Richard Fleischer**

**A: Henry Morgan, Rudy Vallee, Bill Goodwin, Hugh Herbert, Leo Gorcey, Virginia Grey, Dona Drake, Jerome Cowan, Dave Willock, Frank Orth, Arnold Stang, William Blakewell**

1920ko hamarkadan, saltzaile batek amore eman, eta emazteak eta koinatak New York bisitatzeko egindako eskakizunak bete beharko ditu. Biek ala biek senarra aurkitu nahi dute gazteenarentzat, ezkongai aberatsa eta ederra. Haien ustez, New York da tokirik egokiena; gizonarentzat, berriz, abentura zoro bat baizik ez da. Saltzaileak ahalegina egingo du zentzuz jokatzeko, baina, bi emakumeen zuhurtziarik gabeko handinahikeriak direla-eta, egoera komikoetan sartuko dira behin eta berriz, batere onurarik jaso gabe.

Un dependiente debe transigir a las exigencias de su esposa y su cuñada para visitar Nueva York durante la década de los años 20. Las dos mujeres van a la caza de un esposo para la más joven, un partido rico y apuesto. Creen que Nueva York es el lugar indicado a diferencia del caballero que no ve en ello más que una descabellada aventura. El dependiente intenta imponer el sentido común, pero los imprudentes delirios de grandeza de las dos mujeres siempre les llevan a situaciones cómicas de las que en absoluto salen beneficiados.



## VIOLENT SATURDAY (1955)
## LARUNBAT BORTITZA
## SÁBADO TRÁGICO

**90'**

**Z/D: Richard Fleischer**

**A: Victor Mature, Richard Egan, Stephen McNally, Lee Marvin, Ernest Borgnine, Virginia Leith, Tommy Noonan, Margaret Hayes, J. Carrol Naish, Sylvia Sidney, Billy Chapin, Dorothy Patrick**

Hiru lapurrek lapurreta egin nahi dute banketxean, Arizonako meatzaritzako hiri batean. Gaua heltzean, lapurreta egin ondoren, ihes egiten dute bahitu bat hartuta, amish komunitate bat bizi den herrixka bateraino.

Tres ladrones pretenden atracar un banco en una ciudad minera de Arizona. Cuando llega la noche realizan el asalto y huyen con un rehén hasta una población donde vive una comunidad Amish.



## SOYLENT GREEN (1973)
SOYLENT GREEN
CUANDO EL DESTINO NOS ALCANCE

97'
Z/D: Richard Fleischer
A: Charlton Heston, Leigh Taylor-Young, Edward G. Robinson, Chuck Connors, Joseph Cotten, Brock Peters, Paula Kelly, Stephen Young, Mike Henry, Whit Bissell

2022. urtean, New Yorken berrogei milioi lagun bizi dira miseriazko egoeran. Goseari aurre egiteko, elikagai sintetiko bat sortu dute, soylent green izenekoa. Alabaina, Thorn poliziak eta beste garai batetik bizirik irtendako Roth zaharrak uste dute kezkagarria den zerbait dagoela elikagai berriaren atzean.

En el año 2022, la población de Nueva York, unos cuarenta millones de habitantes, vive en condiciones miserables. Para combatir el hambre se crea un alimento sintético, el soylent green, pero el policía Thorn y el viejo Roth, un superviviente de otra época, sospechan que detrás del nuevo alimento hay algo inquietante.



## THE VIKINGS (1958)
BIKINGOAK
LOS VIKINGOS

114'
Z/D: Richard Fleischer
A: Kirk Douglas, Tony Curtis, Ernest Borgnine, Janet Leigh, Alexander Knox, Frank Thring, James Donald, Maxine Audley

Erdi Aro goiztiarrean, bikingoek edo normandaiarrek (Iparraldeko gizakiek) Odin gurtzen zuten, gerraren jainko paganoa, itsasoetatik gidatzen baitzituen, lapurretak egiteko erasoaldiak jotzen zituzten aldiro. Ragnar errege bikingoaren semeak ziren Einar-ek eta Eric-ek elkar gorrotatzen zuten -haien ahaidetasunaz ezer jakin gabe-, baina elkarrekin borrokatu behar izan zuten, Ingalaterrako erregearen atzaparretan zegoen Morgana printzesa askatzeko, biak harekin maiteminduta egonda.

En la Alta Edad Media, los vikingos o normandos (hombres del Norte) adoraban a Odin, el dios pagano de la guerra, que los guiaba a través de los mares cada vez que emprendían sus habituales incursiones de saqueo. Einar y Eric, hijos ambos del rey vikingo Ragnar -aunque ignoraban su parentesco-, se odiaban profundamente, pero se vieron obligados a luchar juntos para rescatar a la princesa Morgana, de la que ambos estaban enamorados, de las garras del rey de Inglaterra.



## THESE THOUSAND HILLS (1959)
MILA MUINO HAUEK
DUELO EN EL BARRO

96'

Z/D: Richard Fleischer

A: Don Murray, Richard Egan, Lee Remick, Patricia Owens, Stuart Whitman, Albert Dekker, Harold Stone, Royal Dano, Jean Willes, Douglas Fowley, Fuzzy Knight, Robert Adler, Barbara Morrison, Ned Wever, Ken Renard

Cowboy bat, herri batean kokatu ondoren, saloon-en lan egiten duen neskarekin maitemindu da. Ez daki neskak harremana duela eskualde osoa mendean duen patroiarekin. Horrek arazo asko sortuko ditu.

Un vaquero se instala en un pueblo y se enamora de una joven que trabaja en el saloon local. Pero ignora que la chica está relacionada con el patrón que domina la zona, lo que le provocará múltiples problemas.



## COMPULSION (1959)
KONPULTSIOA
IMPULSO CRIMINAL

103'

Z/D: Richard Fleischer

A: Orson Welles, Diane Varsi, Dean Stockwell, Bradford Dillman, E.G. Marshall, Martin Milner, Richard Anderson, Robert F. Simon, Edward Binns, Robert Burton, Wilton Graff, Louise Lorimer, Gavin MacLeod

Goi-mailako bi gazte bikainek hilketa bat egin dute, itxuraz motiborik izan gabe. Krimen perfektua egin dutela uste dute, baina krimena haiei egozteko aztarnak utzi dituzte...

Dos brillantes jóvenes de clase alta cometen un asesinato sin motivo aparente; pero, aunque creen haber realizado un crimen perfecto, lo cierto es que han dejado pistas que los incriminan...



## FANTASTIC VOYAGE (1966)
### BIDAI HARRIGARRIA
### VIAJE ALUCINANTE

**100'**

Z/D: Richard Fleischer

A: Stephen Boyd, Raquel Welch, Donald Pleasence, Edmond O'Brien, Arthur O'Connell, Arthur Kennedy, William Redfield, Jean Del Val, James Brolin

Bennet irakasle eta zientzialariak formula bat asmatu du, giza gorputza tamaina mikroskopikora txikiagotzeko denbora mugagabez. Pentagonoari emateko dagoela, espioi batzuek trafiko-istripua eragin, eta ezgaituta uzten dute irakaslea, lan zientifikoak egiteko gauza ez dela. Hala ere, Miniatura Konbinatuen Disuasio Indarrek plan bat abiaraziko dute operazioa egiteko barnealdetik.

El profesor Bennet es un científico que ha creado una fórmula que permitiría reducir el cuerpo humano a un tamaño microscópico durante un tiempo ilimitado. Cuando se dispone a entregarla al Pentágono, unos espías provocan un accidente de tráfico que deja al profesor incapacitado para toda labor científica. Pero las Fuerzas Disuasorias de Miniaturas Combinadas ponen en marcha un plan para operarlo desde el interior.



## THE BOSTON STRANGLER (1968)
### BOSTONGO ESTRANGULATZAILEA
### EL ESTRANGULADOR DE BOSTON

**116'**

Z/D: Richard Fleischer

A: Tony Curtis, Henry Fonda, George Kennedy, Mike Kellin, Murray Hamilton, Sally Kellerman, Hurd Hatfield, George Voskovec, Jeff Corey, William Marshall, Carolyn Conwell, William Hickey, Shelley Burton, Austin Willis, Leora Dana

Benetako gertaeretan oinarritua. 1962. eta 1964. urteen artean, ezkonduta eta itxuraz bizitza normala eta zoriontsua zuen Robert de Salvo iturginak hamahiru emakume hil zituen Bostenen, bortizki itoz.

Basado en sucesos reales. En Boston, entre 1962 y 1964, trece mujeres fueron brutalmente estranguladas por Robert de Salvo, un fontanero felizmente casado y con una vida aparentemente normal.



## 10 RILLINGTON PLACE (1970)

RILLINGTON PLACE-EKO ESTRANGULATZAILEA

EL ESTRANGULADOR DE RILLINGTON PLACE

**111'** Z/D: Richard Fleischer | A: Richard Attenborough, Judy Geeson, John Hurt, Pat Heywood, Isobel Black, Phyllis MacMahon, Geoffrey Chater, Robert Hardy, Andre Morell

Gerra ondoko Londresen, bikote gazte batek eta haien haurtxoak etxea topatu dute Rillington Place-ko 10. zenbakian. Etxebizitza ederra da, baina beheko pisuko maizterra, John Reginald Christie, guztiz aztoragarria zaie. Bikotekideek ez dakite ezer maizterraren historia bortitzaz: hainbat emakume hil zituen, gasa erabiliz, bai eta, ondoren, ekintza nekrofiloak egin ere. Beryl ikustean, berriz piztuko zaizkio gogoan bulkada kriminalak.

En el Londres de la posguerra una joven pareja y su bebé encuentran un hogar en el número 10 de Rillington Place, una preciosa vivienda cuyo inquilino del piso inferior, John Reginald Christie, resulta de lo más inquietante. Lo que desconocen ambos es su violento historial de asesinatos en serie de mujeres mediante gas y sus posteriores actos necrófilos, impulsos criminales que Beryl acabará reavivando en su mente.



## THE LAST RUN (1971)

AZKEN IBILALDIA

FUGA SIN FIN

**95'**

Z/D: Richard Fleischer

A: George C. Scott, Tony Musante, Trish Van Devere, Colleen Dewhurst, Aldo Sambrell, Antonio Tarruella, Robert Coleby

Erretiratuta eta Espainian kokatuta dagoen gangster amerikar batek azken enkargua jaso du: espetxetik ihes egindako gaizkile bat eta haren andregaia Frantziako mugaraino eraman behar ditu, Espainian barrena, aurkako banda atzean duela. Alabaina, planak ez dira aurretik uste zuten moduan aterako.

Un gangster americano retirado y afincado en España recibe un último encargo: trasladar a un delincuente fugado de prisión y a su novia, perseguidos por una banda rival, a través de España hasta la frontera con Francia. Sin embargo, los planes no salen tal y como estaban previstos.



## MANDINGO (1975)

127'

Z/D: Richard Fleischer

A: James Mason, Susan George, Perry King, Roy Poole, Richard Ward, Ken Norton, Brenda Sykes, Lillian Hayman, Ji-Tu Cumbuka

1820. urtea da. Estatu Batuetako hegoaldeko plantazio esklabista batean, Warren Maxwell jabeak (James Masonek) esklaboak trebatzen ditu, borrokan txapeldunak izan daitezen. Hala ere, ez daki Blanche iloba borrokalaririk onenarekin maiteminduta dagoela.

Año 1820. En una plantación esclavista del sur de Estados Unidos, el propietario Warren Maxwell (James Mason) adiestra a sus esclavos para ser campeones de lucha. Lo que ignora es que su sobrina Blanche está enamorada del mejor de sus luchadores.

### SARRERAK ENTRADAS

**Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean**

Taquillas del cine y www.golem.es **4,5€ / 3,5€**

**Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihatilan ilarak saihesteko. Behin emanaldia hasita, ezin da aretoan sartu.**

**Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoirengatik programazioan izan daitezkeen aldaketen erantzulea.**

La sala de cine se abrirá al público 15 minutos antes de la proyección de la película. Se ruega a los espectadores y espectadoras que acudan con unos minutos de antelación para evitar colas en taquilla. No está permitido el acceso a la sala una vez comenzada la sesión.

Azkuna Zentroa no se resposabiliza de cualquier cambio de programación debido a circunstancias ajenas a su gestión.

**Azkuna Zentroko Zinematekak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urte osoan zinemari eta ikus-entzunezko sorkuntzari buruz. Hemen duzu programazioa eskuragarri: www.azkunazentroa.eus**

La Zinemateka de Azkuna Zentroa organiza a lo largo del año diferentes actividades en torno al cine y la creación audiovisual. Puedes consultar la programación en: www.azkunazentroa.eus

### LABURDURAK ABREVIATURAS

**A/F: Argazkiak** Fotografía
**A: Aktoreak** Actores
**ZB/BN: Zuri-beltzez** Blanco y negro
**Dk/Dc: Dekoratuak** Decorados
**G: Gidoia** Guion
**JB/VO: Jatorrizko Bertsioa** Versión Original
**JBG/VOES: Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz** Versión Original en Castellano
**JBGA/VOSE: Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz Azpititulatua** Versión Original con Subtítulos en Castellano
**K/C: Kolorea** Color
**M: Musika** Música
**Mu/Mo: Muntaketa** Montaje
**P: Produktorea** Productor
**Pr: Ekoizpen-etxea** Compañía productora
**S: Soinua** Sonido
**Z/D: Zuzendaria** Director

GURE JARDUERETARA IRISTEA ERRAZTEKO NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-GAITASUN HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA BEHAR IZANEZ GERO, ESKA IEZAGUZU. AZKUNA ZENTROA ESPAZIOA IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.

SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE LA ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD AUDITIVA, PIDENOSLO. AZKUNA ZENTROA ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS LAS PERSONAS.

## ZENTROAREN ORDUTEGIA
HORARIO DEL CENTRO

| | |
|---|---|
| 7:00 - 23:00 | ASTELEHENA-OSTEGUNA<br>LUNES-JUEVES |
| 7:00 - 24:00 | OSTIRALA<br>VIERNES |
| 8:30 - 24:00 | LARUNBATA<br>SÁBADO |
| 8:30 - 23:00 | IGANDEA<br>DOMINGO |

**Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.**

Antes de llevarte este folleto, piensa en tu responsabilidad y compromiso con el medio ambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para que otras personas puedan verlo.

# www.azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO
944 014 014

Depósito legal BI-129-2016

Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao
www.azkunazentroa.eus